

# **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Maddi Aizpurua, Julen Epelde, Iren Iriondo, Oier Lasaga eta Naroa Senperenak BidaiEKO taldea osatzen dugu.

Taldea sortu genuenean argi genuen garraioarekin lotutako proiekturen bat egin nahi genuela, hasieran auto elektrikoetan pentsatzen hasi ginen, baina ohartu ginen lehenik bizikletekin hastea komenigarriagoa izango zela. Horregatik, bizikleta elektrikoekin lotutako proiektu bat planteatzen dugu.

Lehenik eta behin, gure proiektuak, Oarsoaldeako herrietan zehar modu ekologikoan bidaiatzeko arazoa konpontzen saiatu nahi du. Oarsoaldea, lau herriez osatzen da Aiako Harria mendiaren magalean kokatzen direnak. Lehenia Oiartzun, herri txiki bat da eta gainera herriko auzoen lotura ere txarra da herriko autobusak ez baititu lotzen auzo guztiak. Ondoren aipatu berri dugun bezala Oorereta kokatzen da, herri hau eskualdeko handiena da oso industrializatua dago eta bertan zerbitzu asko daude. Ondoren Lezo daukagu, herri txikia eta Oiartzunekin muga egiten badu ere ez dago autobus zerbitzua ez dago bat. Azkenik Pasaia dago, hau 4 barrutietan kokatzen da, Pasai Antxo, Pasai San Pedro, Trintxerpe eta badiaren beste aldean Pasai Donibane. Pasai Donibane Pasaia izanik ere ez dago lotua beste auzoekin lurrez eta barko batez pasa behar da.

Hau da, ikusten genuen ez zegoela bizikletak alokatzeko zerbitzurik gure inguruan eta zerbitzu hori eskaintzea oso aberasgarria izango litzakeela pentsatzen dugu. Bizikleta erosteko ahalmena ez dutenez oso forma egokia da, kirola egiteko aukera ematen duelako inbertsio handi bat egin gabe.

Bigarrenik, esan dezakegu gure zerbitzua zerbait berria dela Oarsoaldean. Oarsoaldean bakarrik gure ibilgailu propioekin edo garraio publikoen bitartez garraiatu dezakegu, oinez ez bada, noski. Bezeroek gure produktua aukeratu dezakete lana errazten duelako, izan ere, bizikleta batzuk eskuragarri izatea beti, oso erabilgarria da eta lehen esan bezala, lana errazten du.

Gainera, gurea bezalako zerbitzurik ez dago, ez daude bizikleta elektrikoak eskuragarri Oarsoaldea osan, eta hauek eskuratzeko ez zara konplikatu behar, bakarrik txartel bat eskuratu kuota baten truke hileru, eta txartelatxo erabili bizikletak erabiltzeko.

Jarraitzeko, balio kuantitatiboari dagokionez txartelaren kuotak ez dira berdinak izango, prezio eta eginkizun ezberdinak edukiko dituzte. Batetik, kuota osoa egongo da, honek bizikleta bat beti eskuragarri izatea, gurpilak puzteko lekua erabiltzeko aukera, kasko bat eskuragarri izatea, eta bizikleta hauek kargatzeaz ez zara preokupatu behar, hartzen duzun tokian etengabe kargatzen daude eta. Bestetik, kuota murriztua egongo da, honek beste zerbitzu bat eskainiko du, toki espezifiko batzuk egongo dira bizikleta elektriko propioak kargatzeko.

Balio kualitatiboari dagokionez, bizikletak paseokoak izango dira herrietan zehar ibiltzeko modukoak. Herri bakoitzean bizikletak hartzeko puntu bat jarriko dugu eta herria handia bada bat baino gehiago. Puntu horiek irekiak egongo litzazke egunean 24 orduz, izan ere, %100 modu independentea da erabilera. Dena aplikazio baten bitartez kudeatua egongo da 24 orduz irekia egotea lagunduko duena.

Hori gutxi balitz, gizarteari laguntzeaz gain ingurumenean ere hobekuntzak egongo liriateke. Gaur egun, ekologismoa pil-pilean dagoen gaia da eta Agenda 30 bezalako egitasmoak mundu guztian lantzen dira, aldaketa klimatikoa dela eta. Proiektu hau egitasmo honen barruan sartu dezakegu. Era berean, Oarsoaldeako udalen laguntza jaso genezake helburu kolektiboa duen proiektu bat duelako ez soilik norbanakoarena. Jendea bizikleta elektrikoak erabiltzeak esan nahi du, kotxeen erabilera gutxitu egingo dela, eta hala kutsaduraren maila asko jaitsiko litzateke.

Laburbilduz, gure zerbitzuak lana errazten du, eskuragarria da denontzat, prezioari dagokionez, hainbat koutrekin jokatzeko aukera ematen dugu. Gainera, erabiltzko erraza da, ia denok dakigu bizikletan ibiltzen, hortaz ez da izango arazo bat erabiltzerako orduan, horretaz aparte, denok dakigunez bizikletan ibiltzen eta arriskurik ez dago. Hau dena kontuan izanda, animatzen zaituztegu gure zerbitzua probatzea eta erabiltzea, seguru gaude gustatuko eta gozatuko duzutela.

## Maddi Aizpurua, Julen Epelde, Iren Iriondo, Oier Lasaga eta Naroa Senperena

- 1.1 Konpontzen saiatu nahi du.
- 1.2 Agian gehiago justifikatu daiteke. Gure eskualdearen ezaugarri demografikoak zeintzuk diren ikusita.. Elkarren arteko komunikazioa garraio publikoaren bitartez ez dela egokia.. Herri barneetan ere auzoak urrun daudela (Errenterin, Oiartzunen, Pasaian..) eta hori dena kontuan izanda, ez soilik bizikletak erosteko batzuk izan dezakaten zailtasuna. Distantzia txikiak dira, baina elkarren arteko komunikazioa ez da erraza eta uste duzue hori konpondu dezakezuela bizikleta alkitatzeko zerbitzua eskainik.
- 1.3 OarsoaldeA osoan.
- 1.4 KONTUZ! Balio kuantitiboak esan nahi du zeri emango diozuen garrantzia, zerbitzua merkea izateari edo kualitatiboari (kalitateari, konfiantzari...) zerk bereziko zaituzteten da galdera. Ez finkatu hainbeste prezioak, hori aurrerago egingo duzue eta, kostuak kontuan hartzerakoan. Aipatu dezakezuen da inbertsio aldetik zailtasun batzuk topatu ditzakezuela, udalekin harremana garrantzitsua izango dela eta zuen helburua dela zerbitzua herritar gehienek esku jartzea eta horretarako prezioa garrantzitsua izango dela. Hau da, prezioari asko begiratuko diozuela.